


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,3 jaitsi ziren 2007ko urrian

Azken hamabi hilabeteetan (2007ko urria, 2006ko urriarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %4,0 gehitu ziren.

2007ko urrian, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urriko urte arteko tasa %4ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Eraikuntzaren azpi-sektorea %0,4 jaitsi zen eta Obra Zibilarena %0,1 urrian; urte arteko tasa %3,9 izan zen Eraikuntzan eta %4,2 Obra Zibilean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera urriko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2007ko urrian, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,5 jaitsi dira.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,6 jaitsi zen Eraikuntzako lehengaien kostua eta %0,2 Obra Zibilekoa. Azken honen pisu erlatiboa txikiagoa da Eraikuntzarena baino. Azpisektore bien urte arteko bilakaerek antzeko joerak izan zituzten: Eraikuntzako lehengaien kostuak %4,1 hazi dira, eta Obra zibilekoak %4,6.

Urrian prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *asfalto-produktuak* (%2,0), *petroliotik eratorritakoak* (%1,9), *erabilitako makineriaren osagarriak* (%1,6) eta *burdingintzako gaiak* (%1,6), besteren artean. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten,

besteak beste, *beira* (%-2,3), *burdina eta altzairua* (%-3,1), eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-2,3) lehengaiak.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: *beira* (%21,3), *petroliotik eratorritakoak* (%15,1), *metalezko hoditeria* (%9,0), *asfalto-produktuak* (%7,6), eta *zementu artifiziala* (%5,7). Bestalde, urte batetik bestera (2006ko urritik 2007ko urrira) honako hauen lehengaien prezioak murriztu ego gutxiago igo dira: *egiturak eta galdaragintza* (%-1,5), *zeramika produktuak* (%0,0), eta *energia elektrikoa* (%0,1).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko urria.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	130,9	-0,3	4,0	3,3
ERAIKINAK	130,8	-0,4	3,9	3,2
OBRA ZIBILA	131,0	-0,1	4,2	3,8
LEHENGAIEN KOSTUA	128,1	-0,5	4,2	3,2
ERAIKINAK	128,2	-0,6	4,1	3,0
OBRA ZIBILA	127,5	-0,2	4,6	4,0
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp